



Arartekoaren ebazpena, 2011ko abenduaren 13koa, (...)ko Kontzejuko auzolanak egiteaz libratzeari buruzkoa.

Aurrekariak

1. Erreklamaziogileak bere desadostasuna adierazi du 2008an (...)ko herrian familia bizilagun gisa auzolanetan esku hartzeko deitu ziotelako. Bere ustez ez zituenez familia bizilagun bateko kide izateko baldintzak betetzen, 2008ko martxoaren 17an bere desadostasuna agertu zuen Administrazio Batzarraren aurrean, eta, horretarako, bere eskaerari oinarri juridikoa ematen ziotela uste zuen arrazoiak azaldu zituen. Hala ere, denbora igaro zen eta ez zuen toki erakundearen berariazko erantzunik jaso, baina 2009ko auzolanak ordaintzeko exijitu zioten.
2. Arartekoaren erakundeak 2010eko ekainean (...)ko Administrazio Batzarrari eskatu zion erreklamaziogileak egindako eskaera berariaz ebatz zezala.
3. (...)ko Administrazio Batzarrak erakunde honi erreklamaziogileari helarazitako erantzunaren kopia bidali zion, baita 2010eko ekainaren 18an Administrazio Batzarrak hartutako erabakiaren eta kontzeju horretan indarrean dagoen Auzolanen Ordenantzaren kopia ere.

Interesdunari bidali zioten erantzunak (...)ko Kontzejuak 2008ko otsailaren 16an hartutako erabakiaren ziurtapena jasotzen zuen.

Erantzuna ikusirik adierazi genuen ebazpen horrek ez ziola erantzuten egindako eskaerari, baita ez zituela erreklamaziogileak planteatutako alegazioak baloratzen ere. Ebazpenak, izatez, 2008ko martxoan interesdunaren desadostasuna eragin zuen alde aurretiko egoera jasotzen zuen, eta interesdunak egoera horren kontra egin zuen eta bere ustez defendatzen zuen planteamendua oinarritzen zuten arrazoi juridikoak azaldu zituen.

Azaldutako arrazoiak ez ziren analizatu, eta, ondorioz, erakunde honek Administrazio Batzarrari berriz lankidetzeta eskatu zion eta egindako eskaera baloratu eta ebazteko eskatu zion.

Bestalde, (...)ko Kontzejuak 2010eko ekainaren 16an hartutako erabakia ezin genuen ebazpentzat jo; izan ere, argitu nahi zen gaia ez zen familia bizilagunek auzolanetan esku hartzeko betebeharra zuten ala ez, argitu beharreko gaia zen ea pertsona hori, (...)ko Kontzejuko Auzolanen Ordenantzan jasotzen ziren aurreikuspenen arabera, familia bizilagun bateko kideztat jo zitekeen ala ez.





Nolanahi ere, erreklamaziogileak herri horretan auzolanetan esku hartzeko omen zuen betebeharrari dagokionez zalantza handiak genituela adierazi genion.

4. Azkenik, (...)ko Administrazio Batzarrak erakunde honi Arabako Foru Aldundiaren Toki Erakundeen Aholkularitza Juridiko eta Ekonomikorako Zerbitzuak landutako Txostena helarazi dio. Bertan ondorioztatzen da interesdunak familia bizilagun gisa auzolanetan esku hartzeko betebeharra daukala, *“como persona que disfruta la vivienda por cualquier título (que la disfruta en la realidad aunque, no sea la Ley la que le concede ese derecho sino la voluntad del usufructuario)”*.

Erreklamazioa ikusirik, (...)ko Administrazio Batzarrak, Arabako Foru Aldundiaren Toki Erakundeen Aholkularitza Juridiko eta Ekonomikorako Zerbitzuak eta interesdunak berak helarazi diguten informazioa analizatu ondoren, ondorengo ohar hauek helarazi nahi dizkizugu.

Gogoetak

1. (...)ko Kontzejuko Auzolanen Ordenantza 1998ko otsailaren 11n ALHAO 18 zenbakian argitaratu zen, eta bertan definitzen da, 2. artikuluan, zer diren familia auzokideak eta zer diren familia bizilagunak. Eta 3. artikuluan, berriz, familia auzokide edo familia bizilagun bakoitzeko kide batek, behintzat, auzolanetan esku hartzeko betebeharra duela zehazten da.

Zehazki, honakoa azaltzen du:

3. art. *“OBLIGAZIOAK: Auzolanak guzien ongia atxikitzen duen gauza bat denez bertara joateko derrigorrezko izaera jartzen da, gutxienez herri honetako auzoko edo bertako biztanle famili bakoitzeko kide bat (2.1 eta 2.2 atalaren arabera, ondorengo salbuespenekin:*

3.1.- Bertako kide guztiak 16 urtetik beherakoak eta/edo 65 urtetik gorakoak dituen famili hura...”

2. art. *“DEFINIZIOAK: Oraingo ordenantzaren ondoriotarako ondorengo definizioak jartzen dira:*

2.1.- Auzo familia: Herriaren barrutiaren barne erregulariki teilatu berdin baten azpian bizi diren pertsona multzoa, etxea urtean 6 hilabete gutxienez irekia mantenduz.

2.2.- Bizi den familia: Herriko barrutiatik kanpo bizi diren pertsona edo pertsonak, bertan etxe bizitzaren bat duten, alojeratua duten edo gozaten dutenak.”

Hau da, Auzolanen Ordenantzaren arabera, familia bizilagun bateko kideetat jotzen dira herritik kanpo bizi diren baina (...)ko udalerrian etxebizitzaren bat duten, alokatuta duten edo nolabait daukaten pertsonak.



Herri horretako (...)n dagoen etxebizitzan familia auzokide bat bizi da eta kide bakarrak osatzen du, 65 urtetik gorako pertsona batek, hain zuzen. Halaber, (...)ko Administrazio Batzarrak badaki Jabetza Erregistroan etxebizitza biziarteko gozamen gisa inskribatuta dagoela bertan bizi den pertsonaren alde. Egoitza horren jabetza soilak kexa aurkeztu duen pertsonari dagokio.

Hau da, interesduna etxearen jabe soilak da. Halere, etxebizitzaren gainean duen jabetza soilako eskubideak ez dio ematen ondasunaz gozatzeko, alokatzeko ezta jabetzan izateko aukera ere; izan ere, egoitza izateko, erabiltzeko eta gozatzeko eskubide edo ahalmen horiek nahiz egoitza alokatzeko eskubidea, gure araubide zibilaren arabera, gozamen-eskubidea duen pertsonari dagozkie.

Gogoan izan behar da: *“Gozamen-eskubideak besteren ondasunak gozatzeko eskubidea ematen du, baina ondasun horien forma eta substantzia mantendu egin behar dira, beren eraketaren tituluak edo legeak beste zerbait baimentzen badute izan ezik”* (467. art. KZ).

Etxe horren gozamenduna familia auzokidearen kide bakarra da, hau da, etxebizitzan bizi dena.

(...)ko Kontzejuko Auzolanen Ordenantzaren arabera, auzolanen betebeharrak familia auzokide edo bizilagunei soilik dagokie. Ordenantza ikusirik, ezin dugu ondorioztatu erreklamaziogileak baldintza hori betetzen duenik, etxea ez baitauka irekita urtero 6 hilabetez, gutxienez, eta ez du herri horretan inolako etxebizitzarik alokatzea, edukitzea edo gozatzea ahalbidetzen dion inolako titulurik.

Bestalde, kasu honetan kide bakarra duen eta etxebizitzan bizi den familia auzokidea ez baldin badago adinarekin lotutako arrazoiak ondorioz auzolanetan esku hartzetik salbuetsirik, Administrazio Batzarrak ez zuela deialdia beste pertsona batzuei luzatuko ondoriozta daiteke. Halere, deialdiaren subsidiarioritasun horrek ez du Auzolanen Ordenantzen babesik, eta, dirudienez, Arabako Kontzejuen Foru Arauan ere ez da jaso. Are gehiago, arau horiek ez dute inolako lehentasunik ezartzen familia egoiliarra adinarekin lotuta salbuetsirik egotearen ondorioz beste norbaitek ordezkatu behar duela ondorioztatzeko. Halere, libratzea auzolanak gauzatzeko betebeharraren ustezkoetarako soilik aurreikusten da.

Zehazki, 4. artikulua horri buruz honakoa dio: **“Auzolanak gauzatzeko betebeharrak duten herritar guztiek libratzeko aukera izango dute; horretarako, lana gauzatzeko gai den beste pertsona bat joan ahalko da, edo 4.000 pezeta (gaur egun 30€) ordaindu ahalko ditu auzolanari dagokion egun bakoitzeko...”**

Horrenbestez, gure ustez, Ordenantzaren testuan oinarrituz, onartu beharra dago familia auzokidea adinagatik salbuetsirik badago ezin duela beste pertsona batek ordezkatu.





2. Arabako Foru Aldundiak landu duen txostenari dagokionez, txostena analizatzerakoan, (...)ko Administrazio Batzarrak planteatutako eskaeraren edukitik abiatu behar dugu, bertan jaso diren ohar batzuk berbideratu egin behar baitira.

La solicitud se formula indicando que en la vivienda *“está empadronada una persona mayor de 65 años, por tanto exenta de realizar las veredas, la cual es usufructuaria de la misma, aunque no reside en ella...”*

Azken ohar hori garrantzitsua da. Horren bidez adierazi nahi duguna da ez dagoela familia auzokiderik, eta jakintzat ematen da etxebizitzaren okupazioa eta erroldako inskripzioekin lotutako eraginak.

Udal Erroldaren Erregistroa udalerrian bizi diren pertsona guztien etxebizitza eta egoerak jasotzeko betebeharra duen administrazio erregistro bat da. Toki Araubidearen Oinarrien Legeko 16. artikulua honakoa xedatzen du horren harira: *“Udalerriko errolda udalerriko auzotarrak jasota agertzen dituen administrazio-erregistroa da. Erroldako zehaztasunak udalerrian bizilekua izan eta bertan ohiko egoitza izatearen froga dira. Zehaztasun horien gainean emandako ziurtagiriak agiri publiko eta fede-emaileak izango dira administrazioondorio guztietarako”*.

Edozein kasutan ere, inskripzioa okertzat jotzen bada, ofizioz bajaran emateko espediente bat sustatu beharko litzateke, egoera hori kasuan kasuko espedientean egiaztatu ondoren, eta bertan, interesdunari entzunaldia eman beharko litzaioke (Populazio eta Lurralde Mugaketaren Araudiko 72. art.).

Halaber, zehaztu beharra dago Arabako Foru Aldundiari helarazitako eskaeran datu bat ez dela aipatzen eta, gure ustez, garrantzitsua dela; hau da, erreklamazioa aurkeztu duen pertsonak ez ezik, bere anaia-arrebek ere etxebizitzan bizi den pertsona asteburuetan zaintzen dutela, eta horretarako erroztazio-egutegi bat ezarri dutela.

3. Arabako landa-eremuan populazioa zahartuz joatearekin lotutako beldurra ulertzen dugu. Era berean, badakigu toki erakunde txiki askorentzat finantzarioki ezinezkoa dela beren egungo baliabide ekonomikoekin beren ondasunak behar bezala mantentzeko lanak gauzatu eta eskaintzea.

Auzolanetako esku-hartzeak jatorri historikoa du eta Arabako toki erakunde txiki askotan sustraiturik dago. Toki erakundearen alde lan egiteko ohitura hori justifikatzen duen arrazoia da normalean erakundearen ondasunak mantentzeko lanak izan ohi direla: sasi-garbiketa eta sasitza kentzea herri-basoetan, bide publikoen garbiketa, iturriak konpontzea eta mantentze-lanak egitea... hori guztia, zuzenean nahiz zeharka, mesedegarria da herriko biztanle guztientzat.





Hori guztia kontuan hartuz, zerbitzu horiek gauzatzeko kanpoko lanak ordaintzeko baliabide ekonomikorik egoten ez denez, beharrezkoa da herri-ondasunen eta jabetza publikoen aprobetxamendu pribatiboa izateko edo, besterik gabe, horiez gozatzeko egoeran dauden pertsonak mantentze-lan egokia gauzatzen laguntzea.

Beharbada, komenigarria izango litzateke Kontzejuan hausnartzen hasia populazioa zahartzearekin lotutako ondorioei eta auzolanak gauzatzeko ohitura mantentzeari buruz, herriko biztanle guztien artean Kontzejuaren ondasunak behar bezala mantentzea ahalbidetzeko moduko irtenbideak aurkitu ahal izateko.

Hala eta guztiz ere, gure ustez ez da ahaztu behar pertsonak ez dutela izaera juridikorik, zerbitzu pertsonala edo libratze ekonomikoa erreklamatzeko.

4. Administrazio zuzenbidean legezotasun positiboaren printzipioa nagusitzen da. Printzipio hori zergen arloan bereziki oinarritzakoa da. Horri dagokionez, kontuan hartzekoa da auzolanen libratze ekonomikoa tasa gisa kalifikatzen dela (Arabako Lurralde Historikoko Kontzejuei buruzko martxoaren 20ko 11/1995 Foru Arauaren 35.2 artikulua).

Legezotasun positiboaren printzipioak aldarrikatzen du herri-administrazioen ekintza eta xedapen guztiek, guzti-guztiek, estaldura aproposa izan behar dutela, hau da, herri-administrazioei ahalmena eman behar diete xedapen horiek egin ahal izateko.

Administrazio-jarduera batek ere ezin du baldintza horretatik salbuetsita geratu. Horren ondorioz, arauan ezinbestean jaso behar da kopuru horren ordainketa exijitu ahal izateko berariazko gaikuntza bat. Aitzitik, azaldu dugun bezala, gaikuntza hori, gure ustez, ez dago kasu honetan.

5. Azkenik, gure ustez, gogoan izan behar da interesdunak 2008ko martxoan tokiko erakunde horren aurrean zalantzan jarri zituela pertsonalki egozten zitzaizkion auzolan-betebeharrak eta erreklamazio hori ez dela ebatzi 2011ko maiatzera arte.

Administrazioak herritarren erreklamazioei erantzunik ez emateak adierazten du administrazioak ez duela behar bezala funtzionatzen eta Arartekoaren erakundeari horren berri eman behar zaiola.



4/1999 Legeak bere zioen azalpenean honakoa adierazten du: *“silencio administrativo es una patología del procedimiento ajena al correcto funcionamiento de las administraciones”* eta *“esa situación de falta de respuesta por la administración, siempre indeseable, nunca puede causar perjuicios innecesarios al ciudadano”*.

Eta ezin du inola ere eragin administrazioak bere jarduerarik ezaren onurarik izatea. Erreklamazioa ez denez berariaz ebatzi, denbora-tarte luze batez herritar horrek auzolanak gauzatzeko omen duen betebeharra zehaztu gabe geratu da. Hori dela eta, Administrazio Batzar honek bere gain hartu behar ditu ebazpena egin ez izatearekin lotutako ondorio ekonomiko posibleak.

Lehenago azaldutako guztiaren ondorioz, erakunde honek ondorio hau helarazi nahi dizu:

Ondorioa

(...)ko Administrazio Batzarrak ez lioke erreklamatu behar interesdunari auzolanak egitearekin lotutako libratzea ordain dezan; izan ere, oraingoz ez dauka familia auzokide edo familia bizilaguntzat joa izateko titulu juridikorik.

